**CHC, 125-126**

**[Hitzaren iturri]**

Hitzaren iturri
-mendi
argi

Txiletik
sutan
Pablo
gartsu

Neruda
etorri
beteko
bateko
Amerika.

Maitasunezko
hogei
poema
eta
agur
-kanta baten

Neftali
minbera
barrukoi
eta bertanbeherako

dehadar
basatidun
Pablo
kantu nagusiko

Neruda
lurrezko
mehatzezko
landarezko

Txilezko
Amerikazko
Abots
garbi

begiz
belarriz
bihotzez
arimaz
lurrari

adi
harri
harrigarri
bizi

izadiaren
oihartzun
geografiaren
larri

kondairaren
su-mendi

gizonaren
pauso
eta harpauso

zailen
hitza
bizitza
-kantu
hertsi

bizitza bera hainako
hertsi ta bizitan
ujolez
olatuz

Itsasoaren misteriozko
hitzen
misterioz
handi

Neruda
Pablo
Neftali

agur t'erdi.